



Usurbilgo Udala



Haur eta Gazteen Aisialdirako Begirale titulua ateratzeko aukera paregabea Usurbilgo gazteentzat

Aisialdiak gero eta garrantzi handiagoa du gure herrian. Udalekuak, ludotekak, eskola-kirola, Gabonetako parkea... hainbat eta hainbat jarduera antolatzen da herrian haur eta gaztetxoei zuzenduta. Esparru honetan lan egin nahi duten gazteentzako prestakuntza eskaintzeko helburuarekin, Usurbilgo Udalak, Buruntzaldeko udalekin elkarlanean, haur eta gazteen aisialdirako begirale titulua ateratzeko aukera eskaintzen die Usurbilgo gazteei.

Ikastaroa irailaren 25ean hasi eta urtarrilaren 30ean amaituko da. Saioak ostiraletan eta larunbatetan izango dira (guztira 200 ordu) eta Andoainen egingo da. 4 asteburu aterpetxe batean igaroko dira eta kasu horietan ostiral arratsaldetik igande eguerdirarteko saioa izango da. Ikastaroa egin ahal izateko baldintza ikastaroa hasten denerako 18 urte beteta izatea da.

Udalak ematen duen diru-laguntzari esker, Usurbilgo eta Buruntzaldeko gazteek matrikulan prezio berezia izango dute, 560 euro ordaindu beharrean 360 ordainduko dituzte.

Izena emateko epea irailaren 1ean hasi eta 18an amaitzen da. Ikasle kopurua mugatua da, beraz, matrikula-dataren arabera osatuko da taldea. Hori dela eta, ikastaroa egin nahi izanez gero, Udal Euskara Zerbitzura lehenbailehen etortzea gomendatzen dugu. (Tel 943 371999)